

Hizkuntzen auziaz

Gure herri honetan, hizkuntzen auziaz geroago eta gauza harrigarriagoak entzun eta irakurtzen ditugu Europaren batasuna lortu nahi dugun une honetan. Europa guziok osatuko ez bagenu bezala edo Europa bere naturaltasunean orotarikioa ez balitz bezala.

Espainiako Konstituzioak bere *Titulo preliminar* haren 3. artikulorekin 2. eta 3. ataletan aipatzen zuen elebitasunaren ofizialtasuna. Horrela, historian lehen aldiz aukeratu zen 1948an ONU-k Giza Eskubideen Agerian gomendatzen zuena. Eta horren arabera, baita ere tokian tokiko hizkuntz naturalak irakaskuntzan babesteko 1953an Unesco-k bere alde tik agertu zituen arauak, *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*, delakoan zioena. Nik dakidanez gazteleraz inoiz argitaratu ez diren arauak noski.

Horien arabera zein Euskal Autonomia Erkidegoak legezko duenez, Hondarribiko San José Hijas de la Cruz deritzon kolegioak arau horiek bete baizik ez du egin filologia irakasteko behar zuen irakaslea hautatzean.

Hori dela eta, kexu agertu da Victoria Eugenia Muñoz Jiménez, berak baino maila beheragoko bati eman diotelako irakasletza (ikus *El Diario Vasco*, Cartas al director saila, 1998ko ekainaren 9koa; eta sail berean, ekainaren 16an, Ander Usabiaga García eman zion erantzuna).

Gai berean lizentziatua denari, irakasle titulua izanik, uka ezinezkoa zaio bere gaitasuna. Gaia edo materia nork hobetu dakien ala ez gauza bat da, baina oso beste bat nork hobeto irakatsi dezakean. Hori, pedagogia kontuan neurtu beharrezkoa da eta, elebitasuna ofiziala den tokian, bi hizkuntzak ezagutzen dituenak beti izango du aukera hobea. Ikasleari dagokio, ulertarazteko ahalmen bi horietan, bietarik aukerakoen zaiotzean hobeto adierazi ahal izatea.

Kontutan hartu behar baita, haurrak, etxeko ohituraren eraginaz gainera, lehen mailako eskoletatik elebitasunean hezituak datozela; hala ere, batzuk, erabileraren arabera edo ohi bezala erraztasun gehiago da-

karte batean edo bestean. Holakoetan nor izango da irakasle hobe? Hizkuntza batean soilik irakasten duena ala, bi jakinik, aurrean duen ikasleari egokien zaionean adierazteko aukera duena?

Hizkuntza batean ulertzea nekez zaion ikasle batentzat alperrikakoa da goragoko mailaz hornitua den irakaslearen jakituria, ulertarazteko hizkuntzarik aukerakoena erabili ezin badu.

Jakintza maila gorengoak ez lioke balioko Txinan irakasle izateko, txinera ez baleki. Gure herrian ez da izango hainbestearinokoa, baina bai elebitasunean ohitura edo erabileraren arabera, batzuk erraztasun gehiago dute batean edo bestean eta irakaslearen egitekoa da ikaslea ahalik eta erarik egokienean hezkuntzan hornitzea.

Euskara gaztelera baino hobeto dakien haurrai ere bere eskubidea zor zaio eta irakasleari dagokio erantzunkizun hori betetzea, haurrari aukerarik egokiena eskainiz.

Hala ezik, atzera begira jarriko ginатеke, aurrera beharrean. Gaur egun, Erdi Aroko Kurutzada haien garaiko: "Hable en cristiano" esaldiak ez du baliorik; ez bai gaude hurbildik ezagutu dugun frankismo diktadurapean. Hizkuntza naturalari, bere izate naturala zor zaio aurrez-aurre dugun Europaren batasunean. Hala baita gure euskarak baino hedadura gutxiago duten hizkuntzak ere errespetu gehiago duten Europa orokorrean. Hortarako ditugu ONU eta Unesco bezalako erakundeen kontseiluak.

Garaia da haurrak guraso hizkuntzan hezitzeko. Adinekook dakigu irakaskintzan zenbat kalte egin zigun ondo ulertu eziniko hizkuntzan gauzak adierazteak. Aurrerantzean holakorik gerta ez dadin ez ote zen ba elebitasuna ofizialki hautatu? Hortarako, jakina, aukerakoena aukeratu beharra dago eta ez bestelako gai batean jakintasun gehiago duena.

Juan San Martin